

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BILARKO UDALA

Jendaurrean jartzea jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 2025ko errolda eta jakinarazpen kolektiborako kobratze epea

Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 2025eko behin betiko errolda jaso eta zergaren zergadunen kobratze zerrendak egin ondoren, eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergari buruzko Foru Arauaren arabera alkatearen 2025eko ekainaren 20ko ebazpen baten bidez onetsi ondoren, jendaurrean jartzen da hamabost egun baliodunez jarduera ekonomikoen gaineko zergaren 2025eko kobratze errolda.

Horrenbestez, aipatutako errolda jendaurrean egongo da udaletxeko idazkaritzan, hamabost egun baliodunez, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten aztertzeko eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak eta alegazioak aurkezteko. Erreklamaziorik ez bada, behin betiko onetsizat joko dira.

Errolda eta hari erantsitako likidazioak onesten dituen egintzaren aurka berraztertzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio hura ebazteko eskumena duen organoari, hilabeteko epean, jendaurrean jarri eta hurrengo egunetik aurrera.

I. Ordaintzeko aldia. Borondatezko aldiko dirubilketa epea bi hilabetekoa izango da; hain zuzen ere, 2025eko abenduaren 1etik 2026ko otsailaren 1era. Borondatezko aldiko dirubilketa epea amaitu ondoren, betearazte aldia hasiko da zuzenean, ordaindu ez diren kuotetarako. Horrek berekin ekarriko du berandutze interesak eta dagozkien erreklarguak eskatzea, Zergei buruzko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 26. eta 28. artikuluetan ezarritakoaren arabera, bai eta premiamendu bidearen kostuak ere, hala badagokio. Bankuetan helbideratutako ordainketetarako, zergadunek ez dute inolako izapiderik egin beharko, eta bankuak 2025eko abenduaren 1ean egingo du zordunketa.

Helbideratu gabeko ordainketetarako, ordainagiria udal bulegoetan emango zaie zergapekoei, jendearentzako zerbitzu ordutegian, udalak Kutxabanken eta Laboral Kutxan dituen kontuetako batean dirua sartu edo banku transferentzia egin dezaten. Zergadunei ohartarazten zaie komeni dela zerga zorrak banketxe edo kutxetan helbideratuta izatea. Bestalde, nola banku helbideratzeetako altak edo aldaketak, hala hurrengo jakinarazpenetarako helbide aldaketak, Bilarko Udalean izapidetu beharko dira.

Epea bukatutakoan, premiamendu bidea hasiko da, eta ordaindu ez diren kuotak kobratuko dira, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak ezarritako erreklarguekin.

Guztiekin jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan argitaratzen da.

Bilar, 2025eko ekainaren 20a

Alkatea

ENRIQUE PÉREZ MAZO